

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## EBren "ekonomia zirkularri" buruzko neurri berriek ingurumen eta ekonomia aukera garrantzitsua ekar dezakete Nafarroarako

*Horrela adierazi du gaur goizean Bruselan dagoen Nafarroako ordezkariak Ingurumeneko eta Lurralde Antolamenduko zuzendari nagusiarekin egindako lan jardunaldi batean, Europak abenduan onartuko duen legediari buruz*

Osteguna, 2017.eko irailak 21

Neurrien multzoa "Ekonomia zirkularreko paketea" deritzo, eta Europar Batasunak urte honen amaierarako onartzea aurreikusi du. Horrek, ingurumen-abantaila eta aukera ekonomikoa ekar dezake Nafarroan aplikatzean, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Ingurumeneko Departamentuak gaur goizean antolatutako jardunaldian adierazi duen moduan.



Ezkerretik eskuinera: Mikel Irujo, Eva García eta Esteban Pérez.

Saioan zehar, Eva García, Ingurumeneko eta Lurraldearen Antolamenduko zuzendari nagusiak, eta Mikel Irujok, Bruselan Nafarroako delegatua denak, ekonomia zirkularrean aditua den Esteban Perezi eskatutako txostena aurkeztu dute, Europako negoziazioen gaur egungo egoera eta Batasuneko arautegian egindako aldaketak izan ditzakeen ondorioak azaldu dituenak.

"Ekonomia zirkularrak" hauxe proposatzen du: lehengaien erabilera arduratsua egitea; baliabideak ahalik eta gehien aprobetxatzea; murriztu, berrerabili, konpondu eta birziklatua araua aplikatzea eta zirkulu etengabearen birziklatzea, naturaren beraren funtzionamendu bera izanez.

### EBren neurriak

Bruselan Nafarroako Gobernuako delegatua den Mikel Irujok Europar Batasunak onartuko dituen lehentasunezko arloen eta neurrien zerrenda bat egin du: plastikoen erabilerari dagokionez, asmoa da birziklagarriak edo biodegradagarriak izatea, ontziei eta haien birziklatzeari bereziki arreta jarritz; neurriak onartuko dira elikagaien hondakin kopurua % 50 murrizteko 2030. urterako; funtsezko lehengaien berreskuratzea hobetzea, tresna elektronikoetan bereziki; eraikuntzatik datozen hondakin arriskutsuak tratatzeko berariazko zuzentarauak; oinarri biologikoko baliabideen erabilera eraginkorraren sustapena, hala nola biomasa, eta

bioekonomiako berrikuntzaren laguntza. Produktu biologikoen arloarekin lotuta, Europak ongarriei buruzko arautegia berrikusi nahi du, ongari organikoak onartzeko eta biomantengaien eginkizuna indartzeko.

Horrez gain, Irujok adierazi du Europako Batzordearen ustez, onartuko diren neurriek bi alderdi positibo izango dituztela, bai ingurumenaren ikuspegitik, bai ikuspegi ekonomikotik, negozio-aukera berriak irekiko direlako.

Onartutako neurriak garatzeko, Batzordeak adierazi du Europako Egiturazko eta Inbertsio Funtsen babesa izango duela, 650 milioi euro hain zuzen, eta hondakinen kudeaketarako Egiturako Funtsen laguntza ere, 5.500 milioi euro. Horrez gain, Europako Inbertsio Bankuak finantzatzen dituen ekimenen babesa ere izango du.

Onartuko diren neurrien jarduera-esparruei buruz ere hitz egin du Irujok: ekoizpen-sektorea, kontsumoa, hondakinen kudeaketa, bigarren mailako lehengaiak eta ura. Sektorre hauetan, komunitateko estrategia ondasunen konpongarritasuna, iraunkortasuna eta birziklagarritasuna hobetzean, programatutako zaharkitzean, ontziei eta hondakinei buruzko zuzentzarauen berrikuntzan eta uraren berrerabileran oinarrituko da.

### **Nafarroako zeharkako apustua**

Bestalde, Ingurumeneko eta Lurraldearen Antolamenduko zuzendari nagusiak, Eva García Balaguerrek, Nafarroako Gobernuak ekonomia zirkularraren eta ekimen argietan gauzatzearen alde egindako apustua azaldu du. Ekimen argi horien artean [Nafarroako Hondakinen Plana](#) aipatu du, eta Nafarroa hondakinen prebentzioan eta murriztean bihurtzeko helburua azpimarratu du.

Horrez gain, Nekazaritza eta Arrantza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak Espainiako Ekonomia Zirkularreko etorkizuneko Estrategia egiteko antolatutako Eztabaida Jardunaldiei buruz ere hitz egin du. Joan den astelehenean egin ziren Madrilan eta administrazio publikoek ekonomia zirkularrean duten eginkizunari eta eskualdeko eta estatuko administrazioaren arteko lankidetzari buruz hitz egin zuen. "Asko inbertitu ahal/behar dugu teknologian eta garapen berrietan, baina borrokarik handiena pertsonak kontzientziaztea da. Kulturen eta erantzukizunean inbertitu behar da, lurraldeko garapen-eredu berri baterako".

Komeni da gogoratzea Nafarroako Gobernuak ekonomia zirkularraren printzipioak jasotzen dituela legealdirako [programa-akordioan](#). Horretarako, prebentzioa nabarmentzen da Foru Komunitateko ezaugarri nagusi gisa, eta baita kudeaketa publikoaren lidergoa eta kalitate oneko enplegua sortzeko gaitasuna ere.



Lan-jardunaldira etorritakoak.